


Errugbia

Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Errugbia

HIZTEGIA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:	I.a, 2015eko urria
Ale-kopurua:	I.500 ale
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm
Azala:	Concetta Probanza
Inprimaketa:	Gráficas Irudi S.L.
ISBN:	978-84-457-3386-8
Lege gordailua:	VI 772-2015

HITZAURREA

Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia duzu hau. Hortaz, Batzordeak gomendatu egiten du hiztegi honetako terminologia erabiltzea.

Izan ere, Terminologia Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea ponderazio-markak finkatuz, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea. Terminologia Batzordeak urteko jarduketa-planetan jasotzen ditu horiek guztiak.

Hiztegi hau, Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen jarraituz. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPeekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko.

Garaiazen arabera, gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntzak ere aldatzen dira, bizirik badaude, behar berriei erantzuteko. Ondorioz, hizkuntza baten modernizatzearen eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa eta terminologikoa etengabe elikatu behar dira, hizkuntza bera normalizatzeko, batetik, eta erabiltzaileen premiei erantzuteko, bestetik.

Honakoa, hiztegiak jorratzen duen eremuko erabiltzaileen oinarritzko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, baita gure hizkuntzaren normalizazioaren eta eguneratzearen bidean urrats garrantzitsuak izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok hizkuntza gero eta aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 17a

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.net/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

fr français

en English

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Aratz Gallastegi (Errugbi-entrenatzailea)

Jon Ander Gorospe (EITB)

Jabier Agirre (UZEI)

Koordinatzailea: **Nerea Laskibar Etxebarria**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Eneko Oregi Goñi, IVApeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

Jorge Giménez Bech, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVApeko ordezkaria

Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Joseba Erkizia Itoitz, aditua

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Miel Loinaz Beristain, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Alfontso Mujika Etxebarria, aditua

UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Eneritz Zabaleta. Berria

Iñaki Laskurain. Euskadiko Errugbi Federakundea

Iñigo Goñi. Diario Vasco

Koldo Alduntzin. Kirol-esataria

EREMU-ZUHAITZA



1 Instalazioak

- Zelaia (jokalekua)
- Materiala

2 Pertsonala

- Kirolariak
- Pertsonal ofiziala (epaileak)
- Pertsonal teknikoa eta laguntzailea

3 Ekipamendua

- Janzkerak
- Errugbian aritzeko babesak eta osagarriak

4 Partida

- Partidaren martxa (puntuazioa)
- Taktikak eta joko-ekintzak
- Arbitrajea (faltak, arau-haustek)

5 Organizazioa

AURKIBIDEA



Bokabularioa sailka

1. Instalazioak	14
2. Pertsonala.	19
3. Ekipamendua	26
4. Partida	28
5. Organizazioa	54

Euskarazko aurkibidea	57
--	-----------

Gaztelaniazko aurkibidea	65
---	-----------

Frantsesezko aurkibidea	73
--	-----------

Ingelesezko aurkibidea	81
---	-----------

Erreferentzia bibliografikoak.	89
---	-----------

BOKABULARIOA SAILKA

I. INSTALAZIOAK

1

10 metroko marra (4)

Erdiko marrarekiko paralelo eta 10 metroko distantziara dauden bi marra etenetako bakoitza.

es línea de 10 metros

fr ligne des 10 mètres

en 10-metre line

2

15 metroko marra (4)

Alboko marrekiko paralelo eta 15 metroko distantziara dauden bi marra etenetako bakoitza.

es línea de 15 metros

fr ligne des 15 mètres

en 15-metre line

3

22 metroko bandera (4)

Alboko bi marren eta 22 metroko bi marren ebaketa-puntuetatik 2 metroko distantziara dauden alboko lau zutoinetako banderetako bakoitza.

es banderín de 22 metros

fr drapeau des 22 mètres

en 22-metre flag

4

22 metroko eremu (4)

Mutur banatan 22 metroko marrak eta entsegu-marrak eta saihetsetan alboko marrek mugatzen dituzten bi area edo zonetako bakoitza.

es zona de 22 metros

fr zone des 22 mètres

en 22-metre area; 22-metre zone

5

22 metroko marra (4)

Sin. hogeita biko marra (4); 22ko marra (4)

Entsegu-marrarekiko paralelo eta 22 metroko distantziara dauden bi marra jarraituetako bakoitza.

es línea de 22 metros

fr ligne des 22 mètres

en 22-metre line

22ko marra

Ik. 22 metroko marra

3/4eko lerro

Ik. hiru laurdenekoen lerro

6

5 metroko marra (4)

Sin. bosteko marra (4); 5eko marra (4)
Alboko marratik 5 metroko distantziara eta harekiko paralelo dauden bi marra etenetako bakoitza. Baita entsegu-marratik 5 metroko distantziara eta harekiko paralelo dauden bi marra etenetako bakoitza ere.

es línea de 5 metros

fr ligne des 5 mètres

en 5-metre line

5eko marra

Ik. 5 metroko marra

7

alboko epailearen bandera (4)

Alboko epaileak jokoan gertatzen diren zenbait ekintza adierazteko baliatzen duen bandera.

es banderín del juez de lateral

fr drapeau du juge de touche

en touch judge's flag

8

alboko marra (4)

Joko-eremuaren zabalera mugatzen duten bi marra jarraituetako bakoitza.

es línea de lateral; línea de touche;
línea de touch

fr ligne de touche

en touchline

9

alboko zutoin (4)

Joko-eremuan dauden hamalau zutoin bertikaletako bakoitza, goiko muturrean bandera batez hornitua.

es poste lateral

fr poteau de touche

en post

10

aldagela (4)

Jokalariek eta arbitro-taldeak partidaren aurretik eta baita partidaren ondotik ere janzteko eta eranzteko erabiltzen duten lekua, espresuki horretarako egokitua

es vestuario

fr vestiaire

en dressing room; changing-room

11

baloi hilaren bandera (4)

Entsegu-eremu bietako alboko marren eta baloi hilaren bi marren ebaketa-puntuetan kokatuak dauden alboko lau zutoinetako banderetako bakoitza.

es banderín de balón muerto

fr drapeau de ballon mort

en dead ball flag

12

baloi hilaren marra (4)

Joko-eremuaren luzera mugatzen duten bi marra jarraituetako bakoitza. Baloi hilaren marrek eta alboko marrek eratzten dute entsegu-eremuaren kanpoko muga.

es línea de balón muerto

fr ligne de ballon mort

en dead ball line

bosteko marra

Ik. 5 metroko marra

13

entsegu-eremu (4)

12 metrotik 22 metrora bitarteko luzera duen eremu laukizuzena, joko-eremuaren mutur bakoitzean hagen atzetik kokatua dagoena. Entsegu-marrak (marra bera eta zutoinak barne hartuz), entsegu-eremuko alboko marrek eta baloi hilaren marrak (marra bera kanpoan geratzen da) mugatzen dute. Talde batek aurkariaren entsegu-eremuan egiten ditu bere entseguak, eta entsegu baliogabetuak, berriz, bere entsegu-eremu propioan.

es zona de marca; zona de ensayo

fr en-but

en field goal; in-goal; in-goal area

14

entsegu-eremuko alboko marra (4)

Entsegu-eremuaren zabalera mugatzen duten bi lerro jarraituetako bakoitza.

es línea de lateral de marca

fr ligne de touche de but

en touch-in-goal line

15

entsegu-marra (4)

Zelaiaren luzera mugatzen duten bi marra jarraituetako bakoitza. Entsegu-marrek eratzen dute zelaiaren eta zelaiaz kanpo geratzen den jokoremuaren arteko muga.

es línea de ensayo; línea de marca

fr ligne de but

en goal line; tryline

16

erdiko marra (4)

Sin. zelai-erdiko marra (4)

Joko-eremua bi zati berdinetan zatitzen duen marra, entsegu-marrekiko paraleloa.

es línea de centro; línea de medio campo

fr ligne du milieu

en halfway line

17

errugbiko baloi (4)

Airez puztutako ganbera batek eta larruzko edo antzeko material sintetikoazko lau ataleko estalki batek osatzen duten gorputz obaldua, errugbian aritzeko erabilia; 28-30 cm-ko luzera, 74-77 cm-ko luzetarako perimetroa, 58-62 cm-ko zabalera-perimetroa eta 410-460 g bitarteko pisua ditu.

es balón de rugby

fr balle de rugby; ballon de rugby; ovale

en rugby ball

18

hagak (4)

Entsegu-marraren erdi-erdian kokatuak dauden H formako bi egituretako bakoitza, bi zutoin bertikalek eta zeharkako langa batek osatuak. Entsegu baten osteko gauzatze-saioan baloia H horren goiko partetik pasatuz, bi puntu lortzen dira, eta hiru puntu, berriz, baloia zigor-kolpe batean edo drop baten ostean pasatzen bada.

es palos; postes de gol

fr poteaux; poteaux de but

en goal posts

19

hiru laurdenekoen lerro (4)

Sin. 3/4eko lerro (4)

Aurrelariak ez diren jokalariek, alegia fase estatikoetan parte hartzen ez dutenek, osatutako lerroa.

es línea de 3/4; línea de tres cuartos

fr ligne de trois-quarts

en three-quarter line

hogeita biko marra

Ik. 22 metroko marra

20

izkinako zutoin (4)

Alboko bi marren eta bi entsegu-marren nahiz baloi hilaren bi marren arteko ebaketa-puntuetan kokatuak dauden alboko zortzi zutoinetako bakoitza. Zutoin horiek entsegu-eremu bakoitzaren mugak adierazten dituzte.

es poste de esquina

fr poteau de coin

en corner post

21

joko-eremu (4)

Errugbian aritzeko eremua, luzetara baloi hilaren marrek eta zeharka alboko marrek eta entsegu-eremuko alboko marrek mugatzen dutena. Joko-eremuak zelaia eta bi entsegu-eremuak hartzen ditu barnean.

es área de juego

fr aire de jeu

en playing area

22

langa (4)

Hagetako bi zutoin bertikalak 3 metroko altueran bata besterekin lotzen dituen barra horizontala, 5,6 metroko luzera duena.

es barra transversal

fr barre transversale

en crossbar

23

markagailu (4)

Plaka edo pantaila moduko tresna, gaur egun elektronikoa izan ohi dena gehienetan. Bertan adierazten dira taldeen nahiz jokalarien izenak, partida bitartean lortzen diren emaitzak, eta baita bestelako hainbat informazio osagarri ere; esate baterako, gertatzen diren ordezpene edo aldaketak, emaitza, joko-denbora, etab.

es marcador

fr tableau d'affichage

en scoreboard

24

marra (4)

Zelaian zuriz pintatutako arrastoa, jokalekua hainbat eremutan zatitzeke egiten dena. Zelaiko marrak izan daitezke jarraituak (entsegu-marrak edo alboko marrak, esaterako) eta baita etenak ere (10 metrokoa nahiz 15 metrokoa, adibidez).

es línea

fr ligne

en line

25

tee (4)

Zigor-kolpeak eta entsegu-gauzatzeak jaurtitzean baloia behar bezala kokatzeko baliatzen den plastikozko euskarri biribila. Garai batean erabili ohi ziren hondarrezko tontorrek edo orpoarekin zelaiko zoruan egindako zuloak erabat ordeztu ditu gaur egun.

es tee

fr tee

en tee

26

txilibitu (4)

Soinu edo hots zolia eta jarraitua ateratzen duen tresna akustikoa, epaileak jokoak dirauen bitartean gertaturiko arau-hausteak, kolpe frankoak eta abar adierazteko erabili ohi duena.

es pito; silbato

fr sifflet

en whistle

27

zelai (4)

Entsegu-marren eta alboko marren artean mugatzen den joko-eremuaren zatia. Errugbiko zelai baten gehieneko neurria 144 x 70 metro da.

es campo de juego; terreno de juego

fr champ de jeu; terrain de jeu

en field of play; ground

28

zelai-erdi (4)

Erdiko marrak joko-eremua zatitzen duen bi erdietako bakoitza.

es campo; medio campo

fr camp; demi-camp; moitié du terrain

29

zelai-erdiko bandera (4)

Zelaitik kanpo erdiko marraren albo banatan dauden bi zutoinetako bakoitzean dagoen bandera.

es banderín de centro; banderín de medio campo

fr drapeau du milieu

en halfway flag

zelai-erdiko marra

Ik. erdiko marra

2. PERTSONALA

aitzineko

Ik. aurrelari

30

alboko epaile (4)

Alboko marra banatan (edo, transformazio-saio batean, hagetako alboko zutoin bakoitzaren atzean), kokatuak dauden laguntzaileetako bakoitza; arbitroari jokoa zuzentzen laguntzen diote.

es juez de lateral; juez de línea

fr juge de touche

en touch judge

31

arbitro (4)

Sin. epaile (3)

Partida bat zuzendu, edo/eta haren iraupena kontrolatu eta jokoaren arauak interpretatu eta betearazteaz arduratzen den pertsona.

es árbitro

fr arbitre

en referee

32

atzelari (4)

Sin. gibleko (4)

Jokalaririk atzeratuena, aurkariek zangoz jotako ostikoak berreskuratzeaz arduratzen dena; sarritan, bere taldearen erasoko jokaldietan ere tartekatzen da, kopuru-nagusitasuna lortzeko. Atzelariak 15 zenbakia darama.

es zaguero

fr arrière

en fullback

33

aurkako talde (4)

Sin. kontrako talde (4)

Partida batean beste talde baten kontra aritzen den taldea.

es adversario; contrario; contrincante; rival

fr adversaire; opposant; partenaire; rival

en contestant; opponent; rival

34

aurkari (4)

Beste talde baten kontra aritzen den taldea edo talde horretako jokalaria.

es adversario; contendiente; contrario; oponente; rival

fr adverse; opposant; rival

en opponent

35

aurrelari (4)

Sin. aitzineko (4)

Uztartzea osatzen duten zortzi jokalarietako bakoitza. Hiru lerrotan antolatu ohi dira: bi harroin eta orpokatzaile bat lehenengo lerroan, bigarren lerroko bi jokolari bigarren lerroan, eta hirugarren lerroko bi hegaleko eta erdiko bat hirugarren lerroan. Konkistako faseetan (uztartzeko geldo, dortoka nahiz lerrokatzeetan) multzo trinko baten moduan aritzen dira aurrelariak, eta 1etik 8ra bitarteko zenbakiak daramatzate.

es delantero

fr avant

en forward

36

aurrelari-multzo (4)

Talde bateko aurrelarien edo aitzinekoen multzoa.

es paquete

fr paquet

en pack

aztalkari

Ik. orpokatzaile

37

baloi-hartzaile (4)

Eska, sake, ostiko eta paseetan baloia ongi hartu eta kontrolatzen duen jokalaria.

es receptor del balón

fr preneur de balle; réceptionneur

bideo bidezko arbitraje

Ik. bideo-arbitraje

38

bideo-arbitraje (4)

Sin. bideo bidezko arbitraje (3)

Bideo-irudien laguntzaz egiten den arbitrajea. Goi-mailako partidetan, agian entsegu bat ekarriko lukeen joko-ekintza bati buruzko zalantzak dituenean, bideo-arbitrajea eska dezake epaileak. Kasu horietan, epaile nagusiaz eta alboko epaileez bestelako laugarren epaile batek joko-ekintza kamera geldoan ikusi, eta bere erabakia jakinarazten dio partidako epaile nagusiarri.

es arbitraje vídeo

fr arbitrage vidéo

en video refereeing

39

bideo-epaile (4)

Sin. telebista-epaile (4)

Epaile laguntzailea; argi ez dauden jokaldi edo ekintzetan epaile nagusiarri erabakia hartzen laguntzen dio, irudiak erreproduzitzeko tresneria baliatuz.

es juez de televisión

fr juge-vidéo

en television judge; TMO; television match official; video referee

bigarren erdi

Ik. bigarren erdiko

40

bigarren erdiko (4)

Sin. bigarren erdi (3)

Lehenengo erdikoaren eta hiru laurdeneko hegalararen artean kokatzen den hiru laurdeneko jokalaria. Bigarren erdikoak 13 zenbakia darama.

es centro exterior; segundo centro

fr deuxième centre

en outside back; outside centre

bigarren lerro

Ik. bigarren lerroko

41

bigarren lerroko (4)

Sin. bigarren lerro (3)

Uztartze geldo bateko bigarren lerroko bi jokalarietako bakoitza. Bigarren lerroko jokalariek 4 eta 5 zenbakiak daramatzate.

es segunda línea

fr deuxième ligne

en lock; middle row; second line forward; second row

42

defendatzaile (4)

Baloiaren jabetzarik ez duen jokalaria edo taldea, aurkariak bere entsegu-eremura hurbil ez daitezen saiatzen dena.

es defenza; defensor

fr défenseur

en defender

43

entrenatzaile (4)

Entrenamenduak planifikatu eta zuzentzeaz gain taldearen hamabostekoa eta ordezkoen zerrenda izendatu eta partidan zehar taldearen zuzendaritzaz arduratzen den kirol-teknikaria.

es entrenador

fr entraîneur

en coach

44

entsegu-eremuko epaile (4)

Zazpiko errugbian entsegu-eremu banatan kokatuak egon ohi diren bi laguntzaileetako bakoitza, eremu horietan gerta daitezkeen ekintzak kontrolatu eta transformazio-saioretan gauzatzea baliozkoa izan den ala ez epaile nagusiari adierazten diona. Gaur egun aurrerapen teknologikoei esker, bideo-epaileak har ditzake funtzio horietako batzuk.

es juez de la zona de marca; juez de marca

fr juge d'en but

en in-goal judge

epaile

Ik. arbitro

45

erasotzaile (4)

Baloiaren jabetza duen jokalaria edo taldea, aurkarien entsegu-eremura hurbiltzeko asmoz jokaldi bati ekiten diona.

es atacante

fr attaquant

en attacker; attacking

erdi

Ik. erdiko

46

erdiko (4)

Sin. erdi (3)

Hiru laurdenekoen lerroaren erdian, joko-zabaltzailearen eta hegalekoaren artean kokatzen diren bi jokalarietako bakoitza. Erdikoek 12 eta 13 zenbakiak daramatzate.

es centro

fr centre

en centre; second-five-eighth

47

errugbilari (4)

Errugbian jokatzeko duen kirolaria. Zelaian duten posizioaren arabera, aurrelariak, uztartze-erdilariak, joko-zabaltzaileak, hiru laurdenekoak eta atzelariak izan daitezke.

es jugador de rugby

fr joueur de rugby

en rugby player

48

eskuineko harroin (4)

Orpokatzailearen eskuin-alboan kokatua dagoen harroina. Eskuin-harroinak 3 zenbakia darama.

es pilar derecho

fr pilier droit

en tight head

49

ezkerreko harroin (4)

Orpokatzailearen ezker-alboan kokatua dagoen harroina. Ezker-harroinak 1 zenbakia darama.

es pilier izquierdo**fr** pilier gauche**en** loose head**gibelego**

Ik. atzelari

giltza

Ik. hirugarren lerroko erdiko

50

harroin (4)

Lehenengo lerroaren mutur banatan kokatutako jokalarietako bakoitza; 1 eta 3 zenbakiak daramatzate. Uztartze batean, harroinak orpokatzaileari heltzen dio beso batekin eta beste besoarekin bere aurrean kokatua dagoen kontrako harroinaren sorbaldari, oinak lurraren gainean ondo finkatuak edukiz eta burua aurkako taldeko orpokatzailearen eta harroinaren sorbalden artean jarriz.

es pilier; pilar**fr** pilier**en** prop**hegal**

Ik. hegaleko

51

hegaleko (4)

Sin. hegal (3)

Hiru laurdenekoan lerroaren mutur banatan kokatuta hegaletatik aritzen diren bi jokalarietako bakoitza; 11 eta 14 zenbakiak daramatzate.

es ala**fr** ailier**en** winger**hiru laurden**

Ik. hiru laurdeneko

52

hiru laurdeneko (4)

Sin. hiru laurden (3)

Uztartze-erdiariaren eta joko-zabaltzailearen atzetik kokatu ohi diren lau jokalarietatik bakoitza. Kontrako taldearen entsegu-eremura iristean eta baloia joko-zabaltzailearengandik jasotzeaz arduratzen dira, edota, aurkariak erasoan ari badira, haiei bidea ixteaz. Hiru laurdenekoak dira lehenengo erdikoak, bigarren erdikoak, hiru laurdeneko eskuin-hegala eta hiru laurdeneko ezker-hegala.

es tres cuartos**fr** trois-quarts**en** back division; three-quarter

53

hiru laurdeneko**eskuin-hegal (4)**

Erasoko lerroaren eskuinaldean kokatzen den hiru laurdenekoa, lehenengo erdikoaren eta bigarren erdikoaren erasoari zelaiaren eskuin-albotik jarraitzen diona. Hiru laurdeneko eskuin-hegalak 14 zenbakia darama.

es tres cuartos ala derecha**fr** ailier droit; trois-quarts aile droit**en** right winger; three-quarter right wing

54

hiru laurdeneko**ezker-hegal (4)**

Erasoko lerroaren ezker aldean kokatzen den hiru laurdenekoa, lehenengo erdikoaren eta bigarren erdikoaren erasoari zelaia ezker-albotik jarraitzen diona. Hiru laurdeneko ezker-hegalak 11 zenbakia darama.

- es** tres cuartos ala izquierda
fr ailier gauche; trois-quarts aile gauche
en left winger; three-quarter left wing

hirugarren lerro

Ik. hirugarren lerroko

55

hirugarren lerroko (4)

Sin. hirugarren lerro (3)
 Uztartze geldo bateko hirugarren lerroko hiru jokalarietako bakoitza. Hirugarren lerroko hegalak (eskuina nahiz ezkerre) eta hirugarren lerroko erdikoa edo giltza dira hirugarren lerroko jokalaria.

- es** tercera línea
fr troisième ligne
en back row; back three; third line forward

hirugarren lerroko erdi

Ik. hirugarren lerroko erdiko

56

hirugarren lerroko erdiko (4)

Sin. giltza (4); hirugarren lerroko erdi (3)
 Erdian edo atzean kokatua dagoen hirugarren lerroko jokalaria, uztartze geldoa ixten duena. Hirugarren lerroko erdiak 8 zenbakia darama.

- es** tercera centro; tercera llave; cierre
fr troisième centre; troisième ligne centre
en number 8; number 8 forward

57

hirugarren lerroko eskuin (4)

Eskuin-hegalean kokatua dagoen hirugarren lerroko jokalaria. Hirugarren lerroko eskuin-hegalak 7 zenbakia darama.

- es** tercera ala derecha
fr avant droit; avant-aile droit
en openside flanker; right flanker

58

hirugarren lerroko ezker (4)

Ezker-hegalean kokatua dagoen hirugarren lerroko jokalaria. Hirugarren lerroko ezker-hegalak 6 zenbakia darama.

- es** tercera ala izquierda
fr avant gauche; avant-aile gauche
en blindside flanker; left flanker

59

hirugarren lerroko hegal (4)

Hegalean kokatuak dauden hirugarren lerroko bi jokalarietatik bakoitza, hau da, hirugarren lerroko ezkerre edo hirugarren lerroko eskuina.

- es** tercera ala; flanker
fr avant-aile; troisième ligne aile
en flanker; outside player

60

jaurtitzaila (4)

Sin. ostikolari (4)

Talde baten defentsako lanean baloiak eskasera urruntzeko eta erasoan zigorkolpeak, entsegu-gauzatzeak eta dropak saiatzeko ardura duen jokalaria.

- es** chutador; pateador; lanzador; kicker
fr botteur; buteur
en kicker

61

jauzilari (4)

Esкас batean, bere jauzi propioa edo taldekideen altxatzea baliatuz harroinak jaurtitako baloia hartzen duen jokalaria. Normalean, lerrokatzeko 2., 4. eta 6. posizioetan kokatu ohi diren bigarren nahiz hirugarren lerrokoak izaten dira.

es saltador**fr** sauteur**en** jumper**joko-zabaltzaile**

Ik. zabaltzaile

62

kapitain (4)

Taldearen ordezkari-lanak egiten dituen jokalaria; hark du arbitroekin hitz egiteko ahalmena, partida hasi aurreko zozketan parte hartzeko ardura eta, arbitroak zigorra adierazteko txilibitua jotzen duenean, dauden aukeren artean hautatzekoa (baloia eskasera urruntzea edo zigor-kolpea saiatzea, esaterako).

es capitán**fr** capitaine**en** captain**kontrako talde**

Ik. aurkako talde

lehen erdi

Ik. lehen erdiko

63

lehen erdiko (4)

Sin. lehen erdi (3)

Zabaltzailearen jarraian kokatzen den hiru laurdeneko jokalaria. Lehen erdikoak 12 zenbakia darama.

es centro interior; primer centro**fr** premier centre**en** inside back; inside centre**lehen lerro**

Ik. lehen lerroko

64

lehen lerroko (4)

Sin. lehen lerro (3)

Uztartzeko geldo bateko lehenengo lerroko hiru jokalarietako bakoitza. Bi harroinak eta orpokatzailea dira lehen lerrokoak.

es primera línea**fr** première ligne**en** front line forward; front row

65

ordezko (4)**es** suplente**fr** remplaçant**en** reserve; substitute

66

orpokatzaile (4)

Sin. aztalkari (3)

Uztartzean, lehenengo lerroaren erdian, bi harroin artean, kokatzen den jokalaria, orpokatzeaz arduratzen dena. Orpokatzaileak 2 zenbakia darama.

es talonador**fr** talonneur**en** hooker**ostikolari**

Ik. jaurtitzaile

67

plakatzaile (4)

Aurkaria plakatzen duen jokalaria.

es placador**fr** plaqueur**en** tackler

68

talde (4)**es** equipo**fr** équipe**en** team

69

taldekide (4)

Talde bera osatzen duten jokalarietako bakoitza

- es** compañero de equipo
fr coéquipier
en teammate

telebista-epaile

Ik. bideo-epaile

70

uztartze-erdilari (4)

Aurrelarien atzean kokatu ohi den jokalaria; uztartzean baloia sartzeaz, jokolari-lerroen arteko jokoa lotzeaz eta biltze edo taldekatzeren bat gertatu ondoren aurrelariak aitzinarazteaz arduratzen da. Uztartze-erdilariak 9 zenbakia darama.

- es** medio de melé
fr demi de mêlée
en scrum half

71

zabaltzaile (4)

Sin. joko-zabaltzaile (4)
 Aurrelarien atzean kokatu ohi den jokalaria; baloia uztartze-erdilariarengandik, alboko sake batetik edo biltze batetik jaso ondoren, jokolari-lerroen arteko jokoa lotzeaz eta taldea aurrerarazteaz arduratzen da. Zabaltzaileak 10 zenbakia darama.

- es** medio de apertura
fr demi d'ouverture; ouvreur
en fly-half; half back; outside half; stand-off half

3. EKIPAMENDUA

72

aho-babes (4)

Sin. hortz-babesgarri (4)

- es** protector bucal
fr protège-dents
en gum-shield; mouthguards

73

barrabil-babes (4)

Sin. esekitzaille (3)

- es** suspensorio
fr suspensoir
en jock-strap

74

belarri-babes (4)

Uztartzeetan belarriak babesteko asmoz errugbilari batzuek erabili ohi duten babeseko pieza berezia.

- es** orejeras
fr serre-tête; protège-oreilles
en scrum cap

75

bota (4)

- es** bota
fr botte; chaussure
en boot; shoe

buru-babes

Ik. kasko

76

ekipamendu (4)

Partida jokatu bitartean jokalariai gainean daraman guztia: elastikoa edo kamiseta, galtzamotzak, galtzerdiak, bota takodunak, eta baita slip bat ere batzuetan. Ekipamendua osatzeko, hainbat babes-pieza erabiltzen dituzte sarritan jokalariek, hala nola kaskoa, zango-babesak, hortzetako babesgarriak nahiz belarri-babesak.

- es** equipamiento
fr équipement
en equipment

77

elastiko (4)

Sin. kamiseta (4)

Errugbilariaren gorputz-enborra estaltzen duen janzkia, mahuka luzekoa nahiz mahuka motzekoa, atzeko aldean jokalariai identifikatzeko moduko zerbaki bat daramana.

- es** camiseta
fr maillot
en jersey; shirt

esekitzaille

Ik. barrabil-babes

78

galtzamotzak (4)

Sin. prakamotzak (4)

- es** pantalón corto
fr culotte; short
en shorts

79

galtzerdi (4)

- es** media
fr bas; chaussette
en stocking; rugby sock

hortz-babesgarri

Ik. aho-babes

80**janzkera (4)****es** indumentaria**fr** tenue; habillement**en** clothes; clothing; dress**kamiseta**

Ik. elastiko

81**kasko (4)**

Sin. buru-babes (4)

es casco**fr** casque de rugby**en** rugby headgear**prakamotzak**

Ik. galtzamotzak

82**tako (4)**

Jokalariaren botaren zolan muntatuak dauden kautxu edo aluminiozko pieza biribil eta lauetako bakoitza; oinetakoak jokalekuan duen atxikidura gehitzeko jartzen dira.

es taco**fr** crampon**en** stud**83****zango-babes (4)**

Babeseko pieza, plastiko gogorrekoa, zangoaren aurreko aldea estali eta babesten duena; errugbilariak galtzerdien azpitik eraman ohi du, hasi botatik eta belaunaren hasieraraino.

es espinillera**fr** jambière; protège-tibia**en** shin guard; shin pad

4. PARTIDA

84

“mark” eskatu (4)

Sin. “mark” oihukatu (3)

es pedir marca
fr crier “marque”
en calling a mark

“mark” oihukatu

Ik. “mark” eskatu

85

22 metroko sake (4)

Sin. hogeita biko sake (4); 22 metroko sake-ostiko (4)

Defentsan ari den taldeak 22 metroko marraren atzetik egiten duen punpasterreko ostikoa; aurrez bere entsegu-eremuan baloia pausatu duelako edo baloi hila gertatu delako egiten da, baloia berriz jokoan jartzeko.

es saque de 22 metros; saque de 22
fr renvoi des 22 mètres; renvoi aux vingt-deux

22 metroko sake-ostiko

Ik. 22 metroko sake

86

3-2-3 eraketa (4)

Sin. 3-2-3 formazio (4)

Jokalariek uztartze geldoan hartzen duten posizioa adierazten duen eskema.

es formación de 3-2-3
fr position à 3-2-3
en 3-2-3 formation

3-2-3 formazio

Ik. 3-2-3 eraketa

87

3-4-1 eraketa (4)

Sin. 3-4-1 formazio (4)

Jokalariek uztartze geldoan hartzen duten posizioa adierazten duen eskema.

es formación de 3-4-1
fr position à 3-4-1
en 3-4-1 formation

3-4-1 formazio

Ik. 3-4-1 eraketa

88

5 metroko uztartze (4)

Epaileak entsegu-marratik 5 metrora dagoen marra etenaren mailan agintzen duen uztartze geldoa; defentsan ari den taldeak bere entsegu-eremu propioan lurrean baloia pausatzeagatik, aurreratua nahiz bestelako faltaren bat egiteagatik agintzen du.

es melé a 5 metros
fr mêlée à 5 mètres
en 5-metre scrummage; five-metre scrum

abant

Ik. aurreratua

89

abantaila (4)

Sin. abantaila-lege (4)

Falta batean, arbitroari joko ez eteteko aukera ematen dion legea, falta egin ez duen taldeak baloia berreskuratu eta/edo jokoan jarraitzeko modua dagoenean aplikatzen dena. Falta jaso duen jokalaria edo haren taldeak baloia kontrolatzen jarraitzen dutenean aplikatzen da, edo baloia jokatze eta erasoari ekiteko egoera onean daudenean. Jokoari ahalik eta jarraitutasunik handiena ematea da abantailaren helburua, arau-hausteak direla-eta gerta daitezkeen etenaldien kopurua murrizteko.

es ventaja; ley de la ventaja**fr** avantage; règle de l'avantage**en** advantage; advantage law**abantaila-lege**

Ik. abantaila

90

abantaila-lerro (4)

Joko-eremuko irudizko lerroa, entsegu-marrekiko paralelo trazatua, une jakin batean baloia dagoen lekutik pasatuz bi taldeak banatzen dituena.

es línea de ventaja**fr** ligne d'avantage**en** advantage line; gain line

91

adierazi (4)

Jokoa bitartean, edo jokoari ekiteko, epaileak ahotsaren, txilibituaren edo keinuen bitartez jakinarazi.

es señalar**fr** signaler**en** signal; indicate**airetiko gelditu**

Ik. mark

92

airetiko ostiko (4)

Sin. boleako ostiko (3)

Eskuetatik edo besoetatik erortzen utzi ondoren baloiak hurra ukitu baino lehen hari emandako ostikoa.

es patada de volea**fr** coup de pied de volée**en** punt**aitzin-pase**

Ik. aurrera-pase

aitzinatu

Ik. aurrera egin

93

albo-ardatz (4)

Entsegu-marrekiko paraleloa den ardatza. Ardatz horretan mugitzean, baloia albo batetik bestera eramaten da.

es eje lateral**fr** axe latéral**en** lateral axis

94

alboko sake (4)

Sin. touche (3)

Aurreko jokaldian baloiak edo baloia daraman jokalaria alboko marra edo haratago dagoen lurra ukitu ostean alboko marraren atzean kokatua dagoen jaurtizaile batek egiten duen sakea; baloia zuzen-zuzen talde bakoitzeko gutxienez bi jokalariz osatutako bi lerro paraleloren erdian eskuarekin botatzean datza. Sakean jaurtitako baloiak 5 metroko marra gainditu behar du.

es saque de lateral**fr** touche; lancer en touche; remise en jeu**en** line-out; line-out throw

95

alboko sake bizkor (4)

Baloia ren jabetza duen taldeak azkar-azkar, lerrokatzea osa dadin itxaron gabe, egindako alboko sakea. Dena den, baldintza batzuk bete behar dira sakea arauzkoa izan dadin: joko-eremutik irtendako baloi bera erabiltzea, baloia jaurtiketa egingo duen jokalaria beste inork ez ukitzea eta lerrokatzea osatzen ez hastea. Sake bizkorrean baloia jaurtitzaileren entsegu-eremurantz zeharka bota daiteke, baina alboko marritik bost metroa dagoen marra gaintuz, betiere.

es puesta en juego rápida; saque rápido

fr remise en jeu rapide; touche rapidement jouée

en quick throw-in

96

albora ostikatu (4)

Sin. eskasera urrundu (4); touchera urrundu (3)

Aurkariak egiten duten presioaren eraginpean edo zigor-kolpe baten ondorioz, alboko marrearantz ostikatu.

es patear a touche

fr dégager en touche

en kick into touch

97

alborako ostiko (4)

Sin. eskaserako ostiko (4); toucherako ostiko (3)

es patada a touche

fr coup de pied à touche

en kick into touch

98

alborako zuzeneko ostiko (4)

Sin. eskaserako zuzeneko ostiko (4); toucherako zuzeneko ostiko (3)

es patada directa a touche

fr coup de pied en touche direct

en kick directly into touch

99

albotik irtete (4)

Sin. eskas (4); touche (3)

Baloiak edo baloia daraman jokalaria alboko marra ukitu edo zeharkatzean gertatzen den egoera, jokoa aldi baterako etetea dakarrena.

es touche; lateral; salida a lateral

fr sortie en touche

en touch

100

aldaketa (4)

Sin. ordezpen (3)

Partida bitartean jokalaria bat kendu eta, haren ordez, beste bat ateratzea.

es cambio; sustitución

fr changement; remplacement

en change; substitution

101

alde ireki (4)

Finkapen-puntu bat (uztartze geldo bat edo baita taldekatze bat ere) gertatu ondoren, alboko marrarekiko bi aldeetatik zabalena.

es lado abierto

fr côté ouvert; grand côté

en opside

102

alde itxi (4)

Finkapen-puntu bat (uztartze geldo bat edo baita taldekatze bat ere) gertatu ondoren, alboko marrarekiko bi aldeetatik estuena.

es lado cerrado

fr côté fermé; petit côté

en blindside

aldi baterako kanporatze

Ik. denbora baterako egozpen

103

altxatze (4)

Eskas batean edo ostikoz egindako sake batean taldekide bat airean jasotzeko ekintza; baloia errazago har dezan jasotzen da horrela.

es ascensor
fr ascenseur
en lifting

antijoko

Ik. joko zikin

arau-hauste

Ik. falta

104

ardatz bertikal (4)

Zelai edo zorutik gorantz doan ardatza. Ardatz horretan mugitzean, jokalaria eraman gabe egiten du aurrera baloia, goitiko baloien kasuan, adibidez.

es eje vertical
fr axe vertical
en vertical axis

105

arraseko ostiko (4)

Sin. behetiko ostiko (3)

Baloia zelai gainean arraseko ibilbidea egin dezan (belarra edo soropila ukituz) ematen zaion ostikoa. Baloia punpa edo bote irregularrak egin ditzakeenez, defendatzeko aski zaila gertatzen da.

es patada rasa; puntapié raso
fr coup de pied rasant
en grubber kick; low kick

106

artezketa (4)

Sin. zuzenketa (3)

Albotiko erasoarekin jarraitu ordez zuzenean zuloa bilatzen duen zabaltzailearen edo erdikoaren ekintza.

es rectificación
fr redressement

107

atxiki (4)

Lurrean dagoen jokalaria baloia arauaren kontra gorde.

es retener
fr retenir
en keep; retain

108

atxikipen (4)

Jokalaria plakatuak erori ondoren baloia eusten badio gertatzen den falta.

es retención
fr tenu

109

aurkaria finkatu (4)

Baloia daraman jokalaria aurkaria(k) erakarri, defendatu gabe dagoen taldekide bati jarraian baloia pasatzeko aukera izateko. Aurkaria ondo finkatua dagoela esaten da, plakatuz edo oratuz libre dagoen erasotzailea defendatzera heltzen ez denean.

es fijar al adversario
fr fixer l'adversaire
en fix an opponent

110

aurrera egin (4)

Sin. aitzinatu (4)

Talde batek abantaila-lerroa aurkariaren entsegu-eremurantz eraman.

es avanzar
fr avancer
en advance

111

aurrera-pase (4)

Sin. aitzin-pase (4)

Aurrerago kokatua dagoen taldekide bati eskuz egindako pasea.

es pase adelantado
fr passe en avant
en forward pass; throw-forward

112

aurreratu (iz.) (4)

Sin. abant (3)

Erasoan ari den jokalariai baloia aurrerantz erortzen zaionean gertatzen den falta. Aurreratua uztartze geldo batekin zigortzen da, baloia aurkariei emanaz.

es adelantado; avant**fr** en-avant**en** knock-on

113

baloi bizi (4)

Epaileak jokoa eteten ez duen bitartean joko-eremuan jokatzeko moduan dagoen baloia.

es balón vivo**fr** ballon vivant**en** live ball

114

baloi hil (4)

Jokatzeko moduan ez dagoen baloia; joko-eremutik irten delako edo epaileak jokoa eten egin duelako egon daiteke horrela.

es balón muerto**fr** ballon mort**en** dead ball

115

baloi-eramaile (4)

Baloia daraman jokalaria.

es portador del balón**fr** porteur du ballon**en** ball carrier

116

baloia eduki (4)

Sin. baloiaren jabe izan (3)

es estar en posesión del balón**fr** être en possession du ballon**en** be in possession of the ball

117

baloia erabiltze (4)**es** manejo de balón**fr** maniement du ballon**en** ball handling

118

baloia eraman (4)**es** llevar el balón**fr** porter le ballon**en** carry the ball**baloia eskuratu**

Ik. baloia irabazi

119

baloia hartu (4)**es** recibir el balón**fr** recevoir le ballon**en** receive the ball

120

baloia irabazi (4)

Sin. baloia eskuratu (3)

Uztartzean edo eskasean baloiaren jabe egin.

es ganar el balón**fr** gagner la balle**en** winning the ball

121

baloia jo (4)**es** golpear el balón**fr** frapper le ballon**en** knock the ball

122

baloia kokatu (4)

Jokalari batek baloia lurrean jarri, ondoren ostiko jotzeko. Jaurtitzeko posizioirik egokienean kokatzeko, jokalaria lurrean bere oinarekin zulo txiki bat eginez manten dezake baloia zuzen, harea edo lurrarekin edo euskarri batekin finkatuz edo taldekideren bati eskuarekin eutsi diezaiola eskatuz.

es colocar el balón**fr** placer le ballon**en** place the ball

123

baloia lurretik jaso (4)**es** recoger el balón**fr** ramasser la balle**en** pick up the ball

124

baloia pausatu (4)

